

## EH Bildu Laudio, aurrekontuen inguruan negoziatzeko eta akordio zabalak lortzeko prest

*Parte-hartze prozesu bat martxan jartzeko eskatu dio EAJ-PSE Udal gobernu taldeari.*

*Ongizate politikak, hau da, osasuna, enplegua eta gizarte zerbitzuak eta laudioarrek eskatutako azpiegituretan inbertitzea izango dira EH Bilduren lehentasunak aurrekontuen negoziazioari begira.*

**Laudio. 2020-10-19.** EH Bildu Laudiok datorren urterako aurrekontuak negoziatzeko eta horren inguruan akordio zabalak erdiesteko prest agertu da gaur gauzatutako batzordean; izan ere, aurrekontu publikoak egiteko lehen faseari ekin dio gaur Udal Gobernuak. Ildo horretan, EH Bilduk uste du ezinbestekoa dela onartu behar den egutegian beharrezkoak diren mekanismoak jartzea, interesa duen pertsona orok bere ekarpenak egiteko aukera izan dezan, udal web orrialdean zabaldu zen prozesutik haratago, aurreko legegintzaldietan egin izan den bezala.

*"Ezin bestela izan, Laudioaren mesedetan negoziatzeko eta akordio zabalak lortzeko erabateko prestasuna dugu, betiere gure herrian egiten ari diren politikan aldaketak egiten badira eta pertsonen, batez ere krisi soziosanitarioaren ondorioak gehien pairatzen ari direnen, bizi-kalitatea hobetuko duten politikan eta proiektuetan eragiten badu",* laburbildu du Santi Hernando Saezek, EH Bilduren izenean .

Aurrekontuen negoziazioari dagokionez, EH Bilduk uste du hiru ardatzei heldu behar zaiela nagusiki: alde batetik, laudioarren osasuna bermatzea; bestetik, enpleguari eusteko neurriak hartzea eta kalitatezko lanpostu berriak sortzea eta, azkenik, kalitatezko gizarte-politikak bermatzea. Hori guztia, laudioarrontzako proiektu estrategikoak ahaztu gabe, besteak beste, Antzokia, auzoetako azpiegiturek, Emakumearen etxea, adinekoen zein umeen parke bana estaltzea, pertsona nagusientzako baliabideak handitzea, Kirol instalazioak hobetzea, HAPOa aldatzen hasteko partida zehaztea, etab,

## **EH Bildu Laudio, dispuesta a negociar y alcanzar acuerdos amplios en materia presupuestaria**

*Reclama al equipo de gobierno PNV-PSE que ponga en marcha un proceso de participación.*

*Las políticas de bienestar, es decir, la sanidad, el empleo y los servicios sociales y la inversión en infraestructuras exigidas por los laudioarras serán las prioridades de EH Bildu de cara a la negociación presupuestaria.*

**Laudio. 2020-10-19.** EH Bildu Laudio ha mostrado hoy su disposición a negociar los presupuestos de la localidad para el próximo año en la comisión celebrada para abordar la primera fase de elaboración de las cuentas públicas. En ese sentido, EH Bildu considera imprescindible que en el calendario se habiliten los mecanismos necesarios para abordar un proceso de participación que permita, a toda persona interesada, hacer sus aportaciones, más allá del proceso abierto en verano en la web municipal, como se ha venido realizando en legislaturas anteriores.

*“Como no podía ser de otra manera, tenemos absoluta disposición a negociar y a alcanzar acuerdos amplios por el bien de Laudio, siempre y cuando supongan un giro en las políticas que se están llevando a cabo en nuestro pueblo y que se traduzcan en políticas y proyectos que mejoren la calidad de vida de las personas, sobre todo, de aquellas que más están sufriendo las consecuencias de la crisis sociosanitaria”,* ha resumido Santi Hernando Saez en nombre de EH Bildu

En lo que a la negociación presupuestaria hace referencia, EH Bildu considera que existen tres ejes fundamentales: garantizar la salud de los y las laudioarras, medidas que favorezcan mantener el empleo y crear nuevos puestos de trabajo de calidad y garantizar unas políticas sociales de calidad. Todo ello, sin olvidar los proyectos estratégicos para los y las laudioarras, entre los que se encuentran el Antzokia, las infraestructuras de los barrios, la Casa de la Mujer, la ampliación de los recursos para las personas mayores, cubrir sendos parques tanto de mayores como de niños, la mejora de las instalaciones deportivas, la concreción de la partida para iniciar la modificación del PGOU, etc.